

1999ko otsailaren 18an, Segurako Udalak orain eskuetan duzun liburu honen egitasmoa abian jartzea erabaki zuen. Handik hona, orrialde hauek bilduz eta onduz joan gara lankide guztiok, urratsez urrats, argitalpen honetara iritsi arte. Segurako, segurarren eta inguruko herrien iragana ezagutzeko aukera aparta izan da berau.

Lehendabizi, proposatutako lan-egitaraua eta liburuaren gidoia onartu ziren, eta ondorengo hilabeteetan osatu zen lankideen zerrenda. Idazlanok buruturik zeuden 1999ko hila-beteetan, eta komeni da irakurleak data hori gogoan hartzea, adibidez bibliografiaren muga kronologikoak non dauden jakiteko.

Hemen euskaraz doazen idazlanetako heren bat bere jatorrian euskaraz idatzia izan da, eta gainerakoak euskarara itzuliak, ezagunak diren itzultzaile-taldeetan (Itzulan, Kalegana, UZEI): herriko euskal hizkuntz tradizioari jarraitu gataizkio euskararen aukera hau egitean. Bestelako erdal lan osagarrietarako abagune onik agertuko da gero ere.

IZAN DITUGUN IDAZLE LANKIDEAK

Liburuko gaietan ikertzaile aditu segurarrrik aurkitu dugunean herriko seme-alabak hautatzen saiatu gara, betiere maila batetik gorako kalitate akademikoa bilatuz; inoiz, puntu jakin gutxi batzuetarako ikertzailea baino lekukoa bilatu dugu, herrian bertako testigua alegia.

Oro har, harremanetan izan garen ikertzaileen iradokizunak aberasgarri eta bide-erakusle gertatu zaizkigu, eta esan beharra dago herritarrek bere emandako albisteak baliozkoak izan ditugula aztergaiak aukeratuz joateko eta alferrikako bide-galtzeak saihesteko. Baina horren guztiaren ondoan, lankide bakoitzak egin dituen ekarpenak daude.

Lehendik ikertzaileek aztertutako gaietan berezilari ezagun horiengana jo dugu, eta horien jakitatea da liburu honek dakarren bermea: honelakoetan, bada, jakin bazekienak emango dizkigu bere ezagumenduak. Xehetasun handietan sartu gabe gogora dezagun pare bat adibide: iturriei buruz Gabriela Vives Almandoz eta Borja Aginagalde ari dira, hain zuzen hurrenez hurren Segurako Udal Artxiboa antolatu duen taldeko bat eta Euskadiko Ondare Dokumentalaren Iargi Zentroko Zuzendaria; J. L. Orella iturrien argitaratzaile ezagunak historiografiari eman dion begiratuak osatzen du horiena; era berean, gure historia ekonomikoan hain garrantzizkoa den Partzoneriaz M. Asunción Urzainki andereak dihardu, hau da, bere doktore-tesia Partzoneriaren historiari egin zuenak. Holatsu gertatzen da hemen Juan Karlos Garmendia (Osasun eta Medikuntzaren historia) edo Isabel Astiazarain-ekin ere (arkitektura erlijiosoa), lehendik arretaz ondutako lanen emaitza dakartela, alegia.

Beraz, lehendik eginak baina sakabanatuta zebiltzan ikerlanetako emaitzen fruitua da liburu honetako hainbat orrialde.

Horrekin guztiarekin batera bada gehiagorik. Libururako gaien zerrenda finkatu genuenean, gure asmoak ez genituen mugatu nahi izan jada eginda zeudenetara; alderantziz, liburuari gai-osotasun egokiago bat eman nahirik, ikerlan berriak sustatu nahi izan genituen, orain artean inoiz ikertu gabeko gai berriak ere besarkatuz. Erronka txiki bat zen hau, baina deia egin genien ikertzaileek biziki ongi erantzun dute, eta hori bi modutara: 1) Bakoitzak lehendik zituen ezagumendu orokorrak, Segurako kasura ekarri eta bertako albistez osatuz, edo 2) Eskatutakoaz oinarritzko lehen ikerlan berria burutuz.

Lehenengo talde horretakoak dira J. A. Mujika, E. Barrera, J. A. Achón Insausti eta S. Truchuelo-ren azterlanak, edo J. Urrutikoetxea, A. Agirre Sorondo-ren biak, X. Unzurrun-

zaga, E. Kortadi nahiz E. Sorazurenak. Antzeko zerbait gertatu da Galarraga/Azpiriren lanarekin, lehendik zeudenak baliatuz eta zekitena osatuz burututako lan horretan.

Esku on horien ondoan, liburu honetarako lehenengoz egindako ikerlanen idazleak ere izendatzekoak dira, azterkizun ziren alde berriak aurkezten dizkigutelako: horietakoak dira P. Agirre, K. Gartzandia eta J. M. Sestoain-en lana, eta B. Aginagaldereen bigarrena, J. de Benito-rena eta J. Intxaustiren biak; era berean, M. Aizpuru eta J. Zalduak bide berriak urratu dituzte Segurako historia honetan.

J. A. Garro artxibozainaren ekarpenak aipu berezia behar du, seguraren leinargien biografietako iturrietan egin duen lanagatik ez ezik eranskinetako pertsonaiei buruz argibide zehatzak behin betirako finkatuta uzten dizkigulako.

Ikertzaileen lagunarte zabal honetan burutu ahal izan da liburu hau. Bestalde, Seguraz idatzi dutenen artean posible zen beste lankiderik hautatzea, baina liburuaren egiturak, tamainak eta lan-prozedurek eraman gaituzte egin dugun aukera honetara. Orrialdeotaraino iritsi ez diren beste ikertzaile horien izenak, ordea, nahitaez hemengo idazlan hauetako oharretan aurkituko ditu sarritan irakurleak. Hemen ez dauden sinaduren artean, hila dugulako eta neurri batean zor bat kitatzeko, L. M. Díez de Salazar-en iturrien edizioa gogorarazi nahiko nuke: *Colección diplomática del Concejo de Segura (1290-1500)*. Honelako iturri-bildumek Udalaren arduraz Udal Artxiboa katalogatzean egin berri diren ikerlanetarako eta ikerkuntza berrietarako ere lanabes erosoak eskaintzen dizkigute. Liburu hau horren guztiaren emaitza ere bada.

Zer da, bada, ikertzaile horiek guztiek liburuko orrialdeetan eskaintzen digutena?

AUKERATU DITUGUN GAIAK

Liburu honen asmoa Segurako herriaren aurkezpen orokor bat eskaintzea izan da, iragan zaharra berriagoarekin uztartuz, seguraren gizartea aztertuz, eta herriko lurraldea aurkeztu eta eraikuntza materiala gogoan izanik. Esan bezala, ikertzaile onen eskuetatik jasotzeko zeudenak bildu nahi ditu liburuak eta funtsezko alde historiko-sozialak behar eta ahal direnetan idazlan berriekin osatu.

Nola egin da, bada, gaien aukera? Zeintzuk dira hobetsi ditugun alde jakingarriak?

Hasteko, premiazkoa iruditu zaigu gure herriaz diharduten iturri idatziak non ditugun erakustea, eta hau da Seguraz ikerlan berririk egin nahiko luketen ikertzaile gazteentzat liburuan bereziki eman dugun atal bakarra: gogoratuta daude, beraz, interesgarrienak izan daitezkeen artxiboak eta historiografia. Honela erantzuten zaio galdera xume honi: *Non ditugu Segurako albisteak?*

Espazioa eta denbora, biak, elkarrekin batera lantzen dira liburuan: ingurumena eta paisaia (geografia fisikoa eta gizatartua), eta aldi berean Hiribilduaren aurreko erro kulturalak ere gogoan hartu nahi izan ditugu, Historiaurrea eta Antzinatea aurkeztuz eta seguraren arteko hizkuntzarik iraunkorrena, tokiko bere ezaugarriekin, erakutsiz. Honek guztiak osatu du liburuko lehen parte, Hiribilduaren *aurreko eta ondoko lehen erroak* aurrean jartzen zaizkigula.

Garai bateko *Erraztiolatza* inguruan eraikitako Segurako Hiribilduak arrakasta nabaria ezagutu zuen, batez ere XV-XVI. mendeetan. Hori zergatik, nola eta zertan gertatu zen jakiteko atal berezia eskaini diegu 1384tik 1615era doazen urte haiei, orduko Segura “Segura” baino gehiago izan baitzen, *lurraldez eta agintez*. Hiri-erakundeztapenaren arrakasta izan zen inondik ere goraldi hura, baina antolaera juridikoak ez ezik herriko gizarteak zerikusi zuzena izan zuen horretan.

Horregatik, *segurarren gizartea* nolakoa izan zen, eta den, eta nolako bilakaera izan duen erakutsi nahi izan dugu ondoren. Lehenengo, noski, herritar guztiak gogoan ditugula (demografia orokorra) eta gero arrakasta sozial, ekonomiko eta politikoa izandako familiak aipatuz, belaunen segida eta elkarren arteko loturak azpimarratzen direlarik. Ohar labur batean adierazi nahi izan dugu, gainera, emakumeak jasan duen histori iturrietatikoa ausentzia. Gizarteaz dihardugula, berorren bizibidean leku esanahitsua izandako zerbitzu eta kultur mundua ere deskribatu nahi izan dira: osasun-mundua, eskola, sinesmen- eta erlijio-bizitza, betiere garai bateko lantegi zaharrak ahanzi gabe.

Gizarte hark –bizitzeko eta harremanak antolatzeke– batez ere Hiribilduko murrubarean espazio antolatu bat sortu zuen, espazio hiriztatua, etxeak eta eraikinak elkarren ondoan zituena, duintasun hierarkiko batean antolatua. Horrek denak balio eta esanahi soziala zuen, noski, baina horrexegatik ere, duintasun estetikoaren eske eta beharra ere bai. Hortik jaio zen “Segura ederra” deituko genukeena, norgehiagoka sozialaren fruitu bezala ere bai. Hauxe da arretaz zaindu nahi izan dugun liburuko beste atala, *Herriko zenbait ikuspegi eder* izenburupean aurkezten duguna.

Liburu honetako parte handi bat Erdi Aro eta Aro Modernoari eskainia da, eta horregatik, herriko iragana ia guganaino luzatzeko, Aro Garaikidea ere bildu nahi izan dugu orrialde hauetara, *azken bi mendeak* deritzagun atalean, ez, noski, erabateko bere osotasunean baina bai zenbait alde nagusi aztertuz. Horrela, herriko politikaren joan-etorriak ezagutzeko aukera izango du irakurleak (1868-1999), eta Segurako udal gobernua nola joan den jakiteko ere bai (1876-1933). Bestalde, segurarren lan-espazioa eta gizartekotasuna nola antolatu den ere ikusi ahal izango du irakurleak; azkenik, Seguran eta segurarrek euskararen zerbitzuan eta artelanean egindako ekarpenen historia ere azalduko digu atal honek.

Eranskinetan bildu dugu herriko historiari dagozkion pertsonaia publikoen hainbat xehetasun: Alkate, Bikario, Benefiziatu, Gotzain, etab. Herriko familiek Parrokiako elizan izan dituzten sepultura eta/edo otoitz-lekuen albisteak ere -sendien oroitzapenean hain baitziren horiek maiteak- ikusi ahal izango dira eranskinetako batean. Irakurlearentzat mesedegarri izango delakoan, hiztegi labur bat ere gehitu nahi izan diogu liburuari.

Testu nagusiaren alboko zuri-uneetan emandako irudi eta oharrak zuzendaritzarenak dira, eta ez idazlanen autoreenak: berorien bidez liburuaren irakurketa samurtu nahi izan dugu, eta beste gisa batean, osatu. Orobat gertatzen da testu nagusian tartekatatu ditugun irudiekin (beren oharrekin batera).

Horiek dira, bada, irakurleari eskueran jartzen dizkiogun gaiak. Liburua, noski, beste molderen batera ere ora zitekeen; baina, gure kasuan, honelaxe nahiago izan dugu, eta aukeratutako bidean ahal izan duguna bildu dugu. Aitortu behar da, nahi izanda ere, ezin izan dela bildu beti hona aurreikusita genuen oro. Hurrengo baterako geraturiko lanen artean daude oso maiteak genituen batzuk: baserrien historia, herriko etnografia, kirol eta zenbait azalpen kulturalena (pilota eta pilotariena, adibidez), irakaskuntzaren berriemate denboraz zabalagoa, etab.

Dena den, Segurari buruzko argitalpenak ez dira liburu honekin hasten, eta ez dira liburu honekin bukatuko, eta azterlanak eginda buruturik aurkeztea bezain interesgarria gerta daiteke, egiteko geratzen zaizkigunak nondik nora joan daitezkeen iradokitzea.

GOGOAN DITUGUN IRAKURLEAK

Lehen-lehenik Segurako herritarrentzat pentsatutako liburua da hau, Seguran bertan nahiz kanpoan bizi direnentzat. Ez da jakitunentzat egindako liburua; bai, ordea, herritar arrunten eskuetan jartzeko jakitun berezilariek idatzia; hala ere, esan beharrik ez dago, testuaren zabalagatik irakur-ohitura apur bat behintzat eskatzen du honelako liburu batek, ohitura eta jakin-mina, alegia. Dena den, orrialde alboetan eman dira begiratu bizkor batean

errazago erreparatzeko testu labur, lauki eta xehetasun aukeratuak, irakur-lana samurtzeko asmoz.

Herriko agintarientzat ez da gaizki etorriko albiste sozial eta historiko hauek eskueran izatea, gaurko nahiz geroko errealitatea ez baita berdin ikusten -eta, hortaz, erabakitzen-iragana ezagutu ala ezagutu gabe. Hain zuzen, liburuan datozen gai-eremuetan genuen eskas-tasuna sentitzean bultzatu dute, uste dudanez, liburu-proiektu hau.

Herriko gazteak berezikiago izan ditugu gogoan, egunen batean tokiko historia hau osatzera etor daitezkeen gazteak eta —zergatik ez?— herritik kanpoko ikertzaileak, hemengo lanak osatu eta hobetzera ingura daitezkeenak. Uste dugunez, herriko eraikinak zaharberri-zearekin batera egoki izango da herritarren oroimen historikoa eguneratu eta aberastea ere.

Oria Goieneko bailarako beste herri eta auzoak ezin dira ahantzi: historian -borondatez nahiz gutxi-asko behartuta- elkarrekin ibili izan dira, batzutan udalerrri berean bilduta, bestetan bakoitza bere gisarago, baina ia beti harreman hurbiletan, zerbitzuak elkarren arri-moan hobetzeko, Partzoneria amankomun bateko ondasunak zaintzen, etab. Oria Goienak bere nortasuna eta ohizko ezaugarriak gordetzen baldin baditu (baserriartearen eta hiritar-tasunaren uztartze historikoa, bertakoen euskaltasun trinkoa, balio ekologiko eta estetikoak, etab.), bailarako herriek elkarren osagarri izan daitezkeen ekimen pizgarriak gara ditzakete, duintasun handi batez. Beraz, zinez poztuko nintzateke orrialdeok Zegama, Zerain, Segura, Mutiloa eta agian Idiazabalgo herritarrei elkartasun-asmu honetan lagunduko baliote. *Oria Goienaren ideia* azpimarratu beharra dago hemen, denen balioak elkarrekin bizi ahal izateko.

Hiribildu bat, bere txikian, beste tokitako izaera, egoera eta bilakaera orokorrako asko-ren kasu eredia izan daiteke, eta Segura ere halakoa da. Alde horretatik, hemen aurkezten dugun informazioak ematen du zer pentsa, eta hemendik haragoko gogoetari ireki behar dizkio leihoak.

Liburu hau ez da oraindik amesten dugun “Segurako Historia” ongi barne-taxutua eta osoa, baina, bildutako idazlanekin, bai horretarako albistegi baliagarria. Izango al dugu laster hurrengo urratsak emateko gogo eta indarrik!

IZAN DITUGUN LAGUNTZAK

Zabal eta luze samar joan den Proiektu honek (1999-2002) hainbat sustatzaile, babesle, lankide eta laguntzaile izan du; batzuk, egiteko osoarekin zerikusia izan dutenak, eta besteak, une edo puntu jakinetan beren ekarpena egin dutenak. Azken hauek aipatuta daude, liburu-ko orrialde eta oharretan, egokierak halakorik eskatu duenean; beste haiek, ordea, aipu jakina behar dute hemen.

Segurako Udala izan da Proiektuaren sustatzailea, eta behar ziren onarpenetan Udaletxean ordezkariak zituzten Alderdi politiko guztiek eman dute baiezkoa: EA, EAJ eta HB. Testuinguru horretan, Karmen Etxeberria Alkatesak (EA) eta Rafael Gerriko Zinegotzi eta Kultur Batzordearen lehendakariak (HB) jarraitu dute hurbilgotik Proiektuaren nondik norakoa. Oro har, Udalarekin harreman estuan eraman dugu dena, hasieran eta gero. Eman zaidan egitekoagatik, neure eta lankideen izenean, esker beroa zor diet Udaletxeari eta bertako hautatuei.

Esan behar da, gainera, Udaletxeko ateak guztiz zabalik izan ditugula lankideok bertako laguntzarik behar izan dugunetan, zuzendari-lanetan bezala ikerkuntza-beharretan. Udaleko funtzionari eta teknikariek adeitasun guztiz lagundu digute, eta erraztasunik ez zaigu falta izan, Iñaki Alonso Udal Idazkari jaunagandik hasi eta Mari Karmen Izeta eta Josune Arron-doganaino. Esker mila hiruroi.

Segurako herritarren artean gogo onez lagundu digun franko izan dugu, familietako hainbat argazki uztean, herriko oroitzapenei hautsak kentzean, Segurako txoko eta balioak begiratzen lagundu digutenean. Denak ezin aipaturik, bat ekarriko dugu hona: Laureano Telleria jauna, Segurako oroimen herritarra hain bizirik duen segurarra. Honek eta guztiok, bada, har bezate nire eskerron betea.

Bizi izandako historiak eta eskura ditugun indarrek lagun gaitzatela Seguran ere etorkizun on eta hobea eraikitzen.

Joseba Intxausti Rekondo
Segura/Donostia, 2002-10-01



Argitalpen honen arduradunak: alboetan, Karmentxu Etxeberría andrea (aurreko Legealdiko Alkatesa) eta Rafael Gerriko jauna (oraingo Legealdian Kultur Batzordeko lehendakaria); erdian, Joseba Intxausti (obraren zuzendaria).